



Hasteko, etxean egindako lana aztertuko dugu, ohi bezala.

Irakur dezatela 42. orrialdean idatzi dutena. «Zer bana dezaket? Norekin bana dezaket?».

43. orrialdean idatzitako erantzunak edo egindako marrazkia ere begiratuko ditugu.

Haurren liburua 40. orrialdean zabaldu, eta Marko 6, 30-44 irakurriko dugu. Irakurri ondoren, Jesusen jokabideari arreta eskaintzeko esango diegu haurrei:

Jesus jendeaz kezkatzen da, jaten eman nahi die, ogiak eta arrainak banatzea proposatu du; eta, azkenean, asetzeraino jan dute denek, eta ogi eta arrain batzuk gelditu ere egin dira.

Denen artean, pasarteak landuko dugu. Katekista lehenengo esaldiarekin hasiko da: «Egun batean, Jesus, txalupatik jaitsi zenean...». Saiatu haurrek amaieraraino jarri dezaten.


Haurrak bi taldetan banatuko ditugu.

Talde batekoak aberatsak izango dira, eta besteak behartsuak. **Aberatsen taldeari A5 neurriko folio bat emango diogu, eta margo urdin bana taldeko haur bakoitzari; behartsuen taldean, haur bakoitzari margo marroi bat.** Eskatuko diegu hiruzpalau minututan bi taldeek A5 neurriko orri batean urdinez eta marroiez margotuta aurkezteko mundua. Kortexoan dagoen eredu bezala.

Ohartuko dira aukera bakarra dela papera bitan banatzea, gero haur bakoitzak egokitu zaion kolorearekin margotzea, eta ondoren margoa beste taldeko haurrekin trukitzea.

Orain, txokolatea hartu (KIT-KAT), eta nahi duten galdetuko diegu. Kontua da puska bakarra dagoela. «Zer egin dezakegu? Zer egin behar dugula esango liguke Jesusek?». Jesusek BANATZEKO esango liguke. Horretarako, puskak egiten joango gara, behar beste puska, inor ez dadin gabe gelditu.

OTOITZA: katekistak esaldi bakoitza irakurtzean, haurrek «Jesus, erakutsi maitatzen» erantzungo dute.





Norbait sufritzen ikusten dudanean,  
Jesus, erakutsi maitatzen.

Daukadana partekatzeko aukera daukadanean,  
Jesus, erakutsi maitatzen.

Norbait burumakur edo triste ikusten dudanean,  
Jesus, erakutsi maitatzen.

Familian nire beharra dutenean,  
Jesus, erakutsi maitatzen.

Lagunekin egoten naizenean,  
Jesus, erakutsi maitatzen.

Egoera bidegabeak ikusten ditudanean,  
Jesus, erakutsi maitatzen.